

DES OBEDIENTEAK

18/98

Desnos,

Txekoslovakia, 1910.

Deuil pour deuil (1924)

desobedientzia iz. Desobeditzea. v

Zuz. Lege eta dekretuei obeditzeari uko egitea.

erresistentzia baketsuaren bidez egiten da.

ez diren legeei buruzko atentzioa emateko, obedi

baliogabe edo zuzen ditzaten. Protesta mota hau darabiltenek

isunak jasotzeko edo kartzelara joateko arriskua beren gain

hartzen dute. Gizarte mugimendu askok erabili dute baliabide

hau, besteak beste, bakezaleek eta emakumezkoen boto

eskubidearen aldekoek. XX. mendean arrakasta handia lortu

zuten bi kasu aipagarrik: Indiaren independentzia eskuratzeko

gandhik britainiar kolonialismoaren legeen kontra bideratutakoak,

statu Batuetan eskubide zibilen alde Martin Luther Kingek

borroka baketsuak.

desobedi, desobeditzen du ad. Ez obeditu,

Desobeditzen duena.

aditz izena.

na, desohorea dakarrena.

du ad. Ohorea



obediente izond. Heg. Esanekoa. **obedientzia** iz. Esanekotasuna. **obeditu, obedi, obeditzen** dio-du ad. Agintzen duenaren nahia bete, esana egin, bestek aginduari amon

“Ainhua” Zientzia Politikoetan doktoratu berri da eta doktoretza-tesia defendatu behar du epaimahai akademiko baten aurrean. Tesiak desobedientzia zibila jorratzen du gure demokrazietan indarrean dagoen eta beharrezkoa den borroka-praktika gisa, eta, aldi berean, esanahiz betetako adibideen bitartez, eskubide zibilen historian eta haiek irabazteko bidean desobedientzia zibilak izan duen rol erabakigarriaz hitz egiten du. Bestetik, funtzioak bete-betean murgilduko gaitu, Garzon epaileak irekitako eginbide batzuetatik abiatuta, 18/98 sumarioaren makro prozesu judizial polemikoan, zeinetan eskubide zibilak gizarte-mugimenduei lotutako oinarri batetik defendatzen zituzten hainbat pertsonaren prozesamenduaren lekuko izan baikin.

Epaiketatik unibertsitatera eta unibertsitatetik mundura, antzezlanak desobedientzia zibilaren oinarrietara eramango gaitu, eta haren funtzionamenduaz eta egungo gizartean dugun haren premia eta pertinentzia azalduko dizkigu

**EGILEA
ITZULPENA**

MARÍA GOIRICELAYA
AIORA ENPARANTZA

ANTZEZLEAK

MIREN ARRIETA / AIORA ENPARANTZA
IÑIGO AZPITARTE
KLARA BADIOLA
KEPA ERRASTI
OMAR SOMAI

**ZUZENDARITZA eta DRAMATURGIA
ZUZENDARI LAGUNTZAILEA**

FERNANDO BERNUÉS / MIREIA GABILONDO
LAIA BERNUÉS

**ESPAZIO ESZENIKOA
ARGIZTAPEN DISEINUA
IKUS-ENTZUNEZKOAK
KOORDINAZIO TEKNIKOA
JANTZITEGIA
ARGAZKIAK**

FERNANDO BERNUÉS
DAVID BERNUÉS
MAIALEN SARASUA
ACRÓNICA PRODUCCIONES
ANA TURRILLAS
GORKA BRAVO

**ADMINISTRARITZA
EKOIZPEN EXEKUTIBOA
EKOIZPENA
BANAKETA**

MAITE GORROTXATEGI
ANE ANTOÑANZAS
PAOLA EGUIBAR
PORTAL 71

Desobedientziak eta errebeldiak beti liluratu izan naute. Beharbada, oraindik oihartzuna egiten didalako haurra nintzeneko “desobediente” hitzak, amaren ahotan; agian, betidanik aurre egin nahi izan diodalako bidegabekeriari bide baketsuetatik, horrek ondorioak izan arren. Galderak beti dira konplexuak:

Zergatik desobeditzen dugu?

Noiz desobeditu behar dugu legeak dioena zilegitasun handiago batera hurbiltzeko?

Legezkoa dena beti da zilegi?

Herritarra behartuta al dago kritikarik gabe obeditzera demokratikoki aukeratutako gobernu legitimo batean?

Zilegi al da desobedientzia zibila gizarte demokratikoetan?

Desobedientzia zibila izan al daiteke legeak berritzeko tresna politiko bat?

Legeak ez betetzearekin loturiko xehetasunetan sartu gabe, kontua da zer den onena guretzat gizarte gisa: lege bidegabeak obeditzen jarraitzea ala lege horiek desobeditzera ausartzea aldaketak lortzeko.

DESOBEDIENTEAK 18/98 antzezlanak konkretua unibertsal egiten du, eta desobedientzia zibilaz hitz egingo digu, ez bakarrik demokraziarekin eta haren printzipioekin bateragarri den tresna gisa, baizik eta demokrazia babesteko ezinbesteko erreminta gisa. Joxemi Zumalabe Fundazioaren kasua eta 18/98 sumarioaren barruko auzipetzea abiapuntutzat hartuta, antzerki-fikzio hau prozesu judizial horretan oinarritzen da eta, horrez gain, desobedientzia zibilaren historian eta haren azken aurrerapenetan murgiltzeko bidaia bat eskaintzen digu.



MARÍA GOIRICELAYA

María Goiricelaya (Bilbao, 1983). Zuzendaria, antzerkigilea, aktorea eta antzerki-ikertzailea da. Arte Ikerketan eta Sorkuntzan doktorea da UPV/EHUn, eta 2016an amaitu zuen tesia: “El entrenamiento vocal del actor en los siglo XX y XXI” (Aktorearen ahots-entrenamendua XX. eta XXI. mendeetan). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta Arte Eszenikoetan graduatu ondokoa da UPV/EHUn, eta hainbat master ditu: Antzerki Musikala (RCSSD), Arte Eszenikoak (Rey Juan Carlos I) eta Kultura Kudeaketa (UOC). Besteak beste, Roy Hart Center (Frantzia), Teatr Piesn Kozla (Polonia) eta Arthoc International Centre (Errumania) zentroetan osatu du bere hezkuntza.

Egin dituen azken lanen artean Yerma (BBK Aretoa), Altsasu (Arriaga Antzokia) eta El Patio de mi casa daude, azken horrekin Max sarietan Autore Berri Onenaren sarirako finalista izan zen. 2017 an La Dramática Errante zigilua jarri zuen martxan Ane Pikaza aktorearekin batera. Gaur egun, zuzentzeaz eta idazteaz gain, BBK aretoko programatzaile artistikoa da Goiricelaya.

**FERNANDO****BERNUÉS**

Tanttaka Teatroa ekoiztetxearen sortzaileetako bat izanik, arrakastaz aritu da arlo ezberdinetan; antzerkia, zinema, telebista... Arte eszenikoetan erreferente bat da gaur egun, bere jarduera profesional luze eta ezaguna dela eta bai zuzendaritzan bai eta eszenografiaren diseinuan. Bere lan esanguratsuenen artean daude; *El Florido Pensil*, *Novecento*, *Soinujolearen semea*, *Muxua*, *Uda gau bateko ametsa* (Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko proiektu goraipatua), *Soka*, *Utzi zure mezua seinalaren ondoren*, *Sisiforen paperak*, *Semea Pixka bat motelago dabil soilik* *Esnearen kolorekoa*, *Heisenberg* edo *Testigo de Cargo* besteak beste.

Mireia Gabilondo Tanttaka Teatroa eta Tentazioa produkzioak ekoiztetxeen sortzaileetako bat da. Euskal Herriko arte eszenikoen irudi nabarmenetako bat da, zuzendaritzan eta interpretazioan eskarmentu handia duelarik, dela antzerkian, dela zineman edo telebistan.

Antzerkian, zuzendaritza lanetan, bere azken muntaien artean, *Badakizu plastikozko loreak ez direla inoiz bizi izan, ezta?*, *Sexberdinak*, *Ameriketako bidaia*, *Gauekoak (Kukai)*, edota *Erlauntza* daude. Aipatzekoa da ere Fernando Bernués-ekin batera zuzenduriko *El Florido Pensil* eta *El Florido Pensil* neskak antzezlanak.

MIREIA**GABILONDO**

FERNANDO BERNUÉS

Eszenografo ezaguna da, azkarra eta irudimentsua, eta egile-zigilua ematen die bere lanei. Poetika eta lengoaia propioarekin espazioak sortzeaz gain, eszenografiak ere sortzen ditu, antzezleen jantziekin, argiztapenarekin, soinuarekin eta mugimenduarekin primeran batzen direnak. *Último tren a Treblinka* edo *Sexpiertos* bezalako proiektu jakin batzuetan, espazio eszenikoa interpreteen eta ikusleen esperientzien laborategi bihurtzeko gai izan da...

Eszenografo bezala, bere azken lanen artean, *Esnearen kolorekoa*, *Testigo de cargo*, *El dilema del corcho* edo *Emakume baten borroka* eta *metamorfosis* nabarmentzen dira.

Max sarietan eszenografia onenaren saria jasotzeko hautagaia izan zen *De Gernika a Nueva York* antzezlanagatik, finalista *Gauekoak* lanagatik eta eszena-zuzendaritza onenaren eta espazio eszenikoaren diseinu onenaren sarirako hautagaia *El nadador de aguas abiertas* lanagatik.

ANTZEZLEAK

MIREN ARRIETA / AIORA ENPARANTZA IÑIGO AZPITARTE



KLARA BADIOLA

KEPA ERRASTI

OMAR SOMAI

ANTZEZLEAK

DESOBEDIENTEAK | 7

Desnos,
Txekoslovakia, 1940, Desobediencia.
Deuil pour deuil (1924)

desobedientzia iz. Desobeditzea. v. Desobediencia.
Zuz. Lege eta dekretuei obeditzeari uko egitea. Normalean erresistentzia baketsuaren bidez egiten da, eta helburua bidezkoak ez diren legeei buruzko atentzioa ematea izan ohi da, haiek baliogabe edo zuzen ditzaten. Protesta mota hau darabiltenek isunak jasotzeko edo kartzelara joateko arriskua beren gain hartzen dute. Gizarte mugimendu askok erabili dute baliabide hau, besteak beste, bakezaleek eta emakumezkoen boto eskubidearen aldekoek. XX. mendean arrakasta handia lortu zuten bi kasu aipagarrik: Indiaren independentzia eskuratzeko Gandhi britainiar kolonialismoaren legeen kontra bideratutakoak, eta Batuetan eskubide zibilen alde Martin Luther Kingek borroka baketsuak.

desobedi, desobeditzen du ad. Ez obeditu, desobeditzen duena.
aditz izena. Desobeditzen duena, desohorea dakarrena.
du ad. Ohorea

Obasanjo, Olusegun Nigeriar militarra eta politikaria (Ogun, 1937). Nigeriako Unibertsitate Baptistan ikas militar ikasketak egin zituen Britainia Handian. 1950 itzuli zen Armada Nazionalean zerbitzatzera, kapitain izendatu zuten, 1965ean komandante koronel eta 1969an, koronel. 1970ean biafrarrak gudarosteko buru izan zen, Biafrako independent gobernua arteko gerran.

obligato Mus. Italicarazko esapidea, musika behar dela adierazteko erabiltzen dena.

obediarazi, obediaraz, obediaraz behartu.

obedient izond. Ipar. Esanekoa.

obediente izond. Heg. Esanekoa.

obedientzia iz. Esanekotasuna.

obeditu, obedi, obeditzen bete, esana egin, bestek agintatu.

obeditzaile izond. Obeditzaile.

obeditze Obeditze.

“BERE GARAIA IRITSI ZAION IDEIA BAT BAINO BOTERETSUAGORIK EZ DAGO”

(Victor Hugo)